



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2010-10-03**

VIII. URTEA 2.090. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Jesus Mari Besance aske utzi dute, epailearen aurretik pasa gabe

VILLABONA Hiru egun inkomunikaturik egon ondoren, Madrilgo kaleetan utzi zuten Besance anaietan gazteena

EZKER ABERTZALEA Juan Carlos Besancek eta Xabier Atristainek bizi duten egoera salatu dute



Villabonako Ezker Abertzaleak, Besance anaien senideekin batera, agerraldia eskaini zuen atzo. ENERITZ MAIZ



Aurrera dantza taldeak ikuskizun bikaina eskaini zuen. IMANOL GARCIA

Jai giroan ospatu dute Aurrera Kirol Elkartekoen euren eguna

LEITZA Pilota, dantza, zaldia, rokodromoa, futbola eta tirolinarekin osatu zuten egitaraua

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

K Komikia

Gorka Salaberria



Extralurtarrak

» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Albistegietan ohizkoak diren ezbehar, krisi eta gerrate berrien artean argi izpi bat ikusteko aukera izan dut aurreko astean, izan ere Nazio Batuen Erakundeak etorkizunean extralurtarrekin hitz egin ahal izateko ordezkari bat izendatu bati du.

Bitxia benetan.

Bi azalpen posible aurkitzen

dizkiot izendapen honi: litekeena da pertsona hau NORBAITen iloba edo amorantea izatea eta zientzia fikziozko entxufismo kasurik argienaren aurrean egotea.

Beste azalpenak, extralurtarrekin harreman posibleak daudela sinistera garamatza, eta hala bada, gaitz erdi! izan ere, aspaldidanik galdua baitut gizakiagan fedea.

Zein onura ekarri du gizakiak mundura?

Milaka animalien estintzioa, basoen deusezte, desertizazioa, kutsadura, gerrateak, esklabismoa, beste gizakien menderatzea eta zapalkuntza...

Laranja baten moduan zukua atera diogu geure planetari... egoera honetan kosta egiten zait gizakiak ekarpen onik egin dezakeela sinestea.

Izango dira intentzio onez beteriko gizabanakoak baina sistema

bera jada ederki osatua eta itxia dago eta ekintzarako tarte eskasa uzten du.

Guzti hau ikusita etortzearen dauen extralurtarren fedea izatea besterik ez zait geratzen: seguru Alf, Astrako, E.T eta honelakoek geure mundua bide zuzenago batetik emateko gai izango direla! Unibertsoko bizilagunen bisitaren zain egotea besterik ez zaigu geratzen... Edozer gauza egungo mandatararien inkompetentziarekin amaitzearren!!

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN

ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900

G Gutunak

Eskerrik asko ikazteita!

Eskerrik asko bai, galdetegia bete duzuen herritar guztioi! Zuen iritzia kontutan hartzea baita guk eman nahi dugun lehen pausua datozen lau urteetan ere, zuei erantzun egokia ematen jarrai dezagun.

Esker bereziak eman nahiko genizkieke aldi berean, galdetegietan bildutako datuen inguruko hausnarketa egitera inguratu zaizkigun herritar horiei.

Demokrazia parte hartzaile baten alde!!

**Ikaztegietak
Ezker Abertzalea.**

Anoetako Gaztetxean Ertzaintzarekin gertatua

Urriak 1, Ostirala, arratsaldeko 16:00ak aldera, Ertzain patruila bat etorri zen Anoetako Gaztetxera, eta bertako kanpoko horman itsatsirik zegoen kartel bat kendu zuten; hain zuzen ere, orain dela egun batzuk Donostian atxilotu zituzten presoan kartela. Hori egin ostean, ertzainek alde egin zuten baina ordubeterean buruan itzuli ziren, Gaztetxean asanblada egiteko momentuan. Gaztebatzuei motxilak irekitzeko eskatu zieten eta Gaztetxearen inguruan miaka ibili ziren. Ordubetere inguru egon ziren

Gaztetxearen atarian eta besterik gabe, inolako azalpenik eman gabe, alde egin zuten.

Gertaera honen aurrean gazteok ez dakigu zer pentsatu. Argi daukagu bisita horiekin gazteon lana bertan behera uztea dutela helburu. Izua sartu nahi digute, zerbait gaizki egiten ariko bagina bezala, baina guk gure ideiak argi ditugu eta antolatuz jarraituko dugu.

Probokazio bat bezala bizi izan dugu gertaera hau eta, salatu beharrekoa irudituz zaigu.

Errepresioa ez da bidea! Euskal Gazteria aurrera!

Anoetako Gazte Asanblada.

Laskorain, pausoz pauso euskaren alde

ERREDAKZIOA

Duela 20 urte, Euskaraz Bizi proiektua sortu zutenek (Atarrabiako Paz de Ziganda ikastola, Lizarra ikastola, Gasteizko Euskaraz Bizi lagunak eta Laskorain ikastola), ekimen berezi bat jarri zuten martxan: «orain 20 urtekin hona, urtero-urtero, Euskal Herriko mendi-tontorren batean Euskaraz Biziren omenezko oroigarria jarritzen dugu».

Orduz geroztik, euskararen aldeko euren apustua berresteko, urtero mendi-irteera bat egiten dutelarik. Pasa den igandean egin zuten, hain zuzen, hogeigarrena. Atarrabiako lagunek gonbidatuta, Laskorain ikastolako 80

lagun joan ziren Nafarroara, eta hango lagunekin batera egun pasa ederra egin zuten. Goiz partean, Burutxeko mendian jarri zuten 20. mendi-buzoia, eta ekitaldiaren ondoren, Paz de Ziganda ikastolako gurasoek prestatuta, hamaiketako akoa egin zuten. Segidan, indarberri-urtero, aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen ari den Paz de Ziganda ikastolara jaitzi ziren, eta han bertan bazkaldu zuten.

Laskorain ikastolatik gogoratu dutenez, «nahi izanez gero behintzat, igande honetan bertan Pasa-Lezon izango den Kilometroak festan, euskarari bostekoa emateko aukera izango dugula beste behin ere».



Burutxeko mendi tontorrean euskararen alde. HITZA

Bero Tolosako azokan

Ekonomia » Giroak ere azoka epeldu zuen atzokoa. Produktuek aldiz goraka jarraitzen dute, perretxiok bezala.

PABLO ALBERDI

Azoko azoka eguna lasaia samutu genuen hasieratik. Egindako berolak erosle gehienak apaldu egin zituen zertxobait, eta aurreneko orduetan ez genuen salmenta gehiegi ikusi mahaietan. Beti bezala, goiza aurrera zihoala, pittin bat animatu egin zen, baina beste egunetako zenbakietaraino ez ginen iritsi.

Eskaintza ordea, eguraldiari esker, asko hobetu da. Perretxiko zereendak adibidez gora egin du, eta aurtengo bertako lehenengo ondokoak ikus ahal izan genituen mahaietan. Hauekin gorringoak, ziza horiak, nikaloak, mendiko angulak eta erdaraz *Trompeta de la muerte* bezala ezagutzen diren perretxiokoa.

Errezil sagarra, izarra

Fruta zerranda ere oso zabala dugu egun hauetan. Errezil sagarra erregina dela, udareak, aranak, pikualak, matxakanak, kiwiak, gaztainak, intxaurrak eta urrak ere izan ziren mahaietan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.	Espinaka	2,00	-
			Porrua	1,50	3,00

Landareak	Ziklamena	5,50	-	Barazkiak (Kiloa)	Tipula berria	1,50	-
	Ziklamen minia	3,00	-	Babarrun zuria	8,00	-	
	Menta	1,50	6,00	Tomatea	3,25	4,00	
	Albaka	1,50	6,00	Porruak	1,00	4,00	
	Zainzuria	2,80	-	Tolosako babarruna	10,00	12,00	
	Salbia	1,00	1,20	Babarruna Lekan	10,00	12,00	
	Berbena	3,00	-	Patata berria	1,50	2,00	
	Zilantroa	1,50	-				

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxiok	Ziza horiak	18,00	-	Barazkiak (unitatea)	Eskarola lisoa	1,00	1,50
	Kuletroa	35,00	-		Eskarola kizkurtua	1,00	1,50
	Mendiko angula	20,00	-		Azalorea	1,00	1,25
	Nikaloa	20,00	-		Txikoria	1,00	-
	'Tronpeta de la muerte'	20,00	-		Trebisoa	0,50	-
	Onddoak	20,00	-		Letxuk	0,50	0,80

Fruta	Kiwia	3,50	-	PRODUKTU EKOLOGIKOAK	Fruta	Sagarra	2,00	3,00
	Errezil sagarra	2,00	4,00		Intxaurra	4,00	6,00	
	Urra	2,00	3,00		Barazkiak (sorta)	Tipula	1,75	2,00
	Intxaurra	2,50	4,00		Erremolatxa	1,60	-	
	Udarea	1,00	-		Barazkiak (kiloa)	Kalabaza	1,60	3,04

Barazkiak (sorta)	Ziazerba	1,00	-	Barazkiak (kiloa)	Baratzuria	1,60	6,00
	Erremolatxa	1,50	2,00		Azenarioa	2,00	2,50
	Tipula	0,80	1,00		Dilistak	2,40	-
	Azenarioa	1,20	5,00				

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Autokarabana.** 6 personentzako autokarabana alokairuan hartuko genuke Eguberrietatik Errege Egunaren arteko egunetan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 647 97 88 45.

■ **Baserría edo borda.** Baserrí edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Interesatuak deitu: 634 45 9110.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Lekunberriko jate-batek asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko esperientzia-dun zerbitzaria behar du. Interesatuak deitu 659 01 52 47 telefono zenbakira.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxe-garbitzailea.** Neska arduratsua lan bila dabil etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu: 629 10 29 38 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Bidegoian, Goiaz.** Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. Estreintzeko, material oso onak. Portxe, terraza eta jardinarekin. Aukera ezin hobea! 943 30 40 38.


Laburrak

Euskal Herria Zutik! batzar «garrantzitsua» ostegunean

TOLOSA • Tolosako Ezker Abertzaleak herritar guztiak gonbidatu dituzte ostegunean, urriak 7an, egin dugu duten «batzar garrantzitsua». 20:00etan elkartuko dira Tolosako Kultur Etxean eta bertan, Euskal Herria Zutik! ekimenaren inguruan jardungo dira: «Orain artean eman diren urratsak, non aurkitzen garen eta aurrera begira zer egin daitekeen aztertuko ditugu. Beraz, deialdi berezia egin dugu ostegunerako».

Euskal Jairako azken eguna

ANOETA • Urriaren 10ean ospatuko duten Euskal Jaian, 14:00etan bazkaria egingo dute. Txartelak erosteko azken eguna gaur dela jakinarazi dute Anoetatik. Bazkaria frontoian izango da eta mondejua, bildotsa, letxuga-tipula, yogurra, kafea eta kopa banatuko dituzte. Tikitak Itzulin, Haizean, Arkupen, Buztinan eta Laian eskuratu daitezke 20 euroren truke (langabetuak eta ikasleak 15 euro, eta 8 urtekin beherako umeak 10 euro).



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ZORTZI FINALISTAK

XII. HITZA Argazki Lehiaketa » Harpidedunen txanda iritsi da. Zortzi finalistak hauek dira eta zuen bozkek erabakiko dute irabazlea.

EREDAKIZIOA

XII. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak hauek dira. Orain harpidedunek erabaki behar dute nortzuk jasoko duten saria. Bost egun dituzte surretik, hau da, urriaren 18tik 23ra bitartean bozkatu ahalakoa.

Horretarako argazkiak@tolosaldea.com helbidera idatziz deusketu eta bertan argazki bakotzarekin batera ikusten duzuen zenbakia eta harpidedun kodea eman. Telefonoz ere egin dezakezute (943 66 56 95) euren aukeraketa. Datoren igandean, urriaren 19an, argitaratuko ditugu irabazleak.


Sari bitainak

Zortzi argazkietan onena ateratu duenak «Ea (Eizkaija)» herriandagoen Andutza landetxean bi pertsonentzako bi gau batego egonaldia eskuratuko du.

Bisoreen galdutzean denak, Getaria (Gipuzkoa) herrian dagoen Gure Ametsa landetxean bi pertsonentzako gau batego egonaldia eskuratuko du.

Hirugarren saria Gorrotxategi Gozotegiak eskaini duen saskia izango da.

Azkenik, parte hartzaileetabonue emale guztien artean HITZ Ako materiala zozketatuko dugu, gaitzailerik egon ez dadin.



1 Egoitz Bengoetxe: «Ládan urruneko parajeetan ibili bansiz ere, etreko argazki bat aukeratu dut, Txindokin ateratako hau bain zuzen ere». https://www.instagram.com/egoitza_bengoetxe



2 Pablo Marfuri: «Mozambikoko argazkia bidaltzen dizuet. Iñakio kaleetan pasatzea denboran atzera egitea da. XIX. mendera arte Fomentor Mozambikoko hiriburu izan zen; urrea eta eskabuen trafikoa zela eta. Ameriketarako eta Indiarako atea izan zen. Garai oparok, uruzkoak, urrun geratu dira. Erortzean dauden etxebizitza kolonialen atarietan, honelako salberreri postuak daude. Lantailoratu eta naretsosurren irudira. Tomateak eta kokoiak saltzen dituen emakumeak, umeekin jolasi egiten duen bitartean». <https://www.instagram.com/pablomarfuri>



3 «La sal' izeneko irian izan gara eta argazkian ageri den neskatu politi hau iluntzeri portuan aurkitzen genuen hortzimugari begira bere alta arrantzaletan noiz etorritiko zabal». <https://www.instagram.com/la.sal>



4 Ohana Irazusta: «Abuztuko arratsalde batean Donostian ateratako argazki bat bidaltzen dizuek». <https://www.instagram.com/ohanairazueta>



5 Javi Aramendia: «Voth Gorostidiko lanetan kotxe bat utzi zuten obrer inguratutik. Hortik igarotzen ari nintzen eta esan nuen, argazki hau irabazlea da. Ez dakit nola ateratu zuten autoa». <https://www.instagram.com/javiaramendia>



6 Ibai Iriarte: «Aurtengo udan, Lacson izan gara. Argazki hau, soilik barkuz iristen zene herritako batego gora, oinez jaundako auzune batego aterata dago. Oso leku polita, 'Goku'-ren arkaitz artean, arrozetan inguratuta. Leku zoragarria, lasaia eta jende jatorrez bete». <https://www.instagram.com/ibaiiriate>



7 Ainara «Zarauz»: «Ez da oso urrutira joan behar, askotan Zarauko kasuan bezala, etxean zer dugun ere ez dakigula». <https://www.instagram.com/ainara>



8 Ibai Sarasola eta Nerea Arregi: «Udarrari agur esateko Landotan pasa genuen azken astebarua. Educin lekutara joanda ere eguzki-irratien deneko momentua baino gauza politagorrik ez dago». <https://www.instagram.com/ibaisarasola>



Villabonako udaletxearen aurrean, herritar ugari elkartu zen asteazkeneko atxiloketak salatzeko. Txalo zaparrada batekin amaitu zuten. E. MAIZ

Guardia Zibilak Jesus Mari Besance aske utzi du Madrilen

Villabona » Atzo eguerdian Ezker Abertzaleak agerraldia egin zuen azken atxiloketak salatzeko.

ERREDAKZIOA

Atzo goizeko 08:00ak aldera Jesus Mari Besance villabonarra libre gelditu zen Madrilgo kaleetan. Epailaren aurretik pasa gabe eta hiru egun inkomunikaturik pasa ostean, Guardia Zibilak Madrilen libre utzi zuen.

Dirurik gabe utzi zuten. Etxera deitzeko dirua eskatu behar izan zuen Jesus Mari Besancek. Behin etxekoei aske zegoela jakinarazita, senitartekoei seguitan Madrilerako bidea hartu zuten. Familia iritsi bitarteko orduetan ordea, Madri-

len bizi den herritar baten konpainia izan zuen Besancek. Behin familiarekin elkartuta herrirako bidea hartu zuten guztiak. 21:00ak aldera, familiakoak, herritarrak eta lagunak herriko plazan zain izan-go zituen ongi etorri beroa egiteko.

Baina berarekin batera atxilotu zituzten bere anaia Juan Karlos Besance eta Xabier Atristain, guardia zibilen eskuetan inkomunikatuta daude. Eta ia ziurra da epailearen aurrera bihar eramango dituztela.

Asteazkeneko atxilotu zituzten Guardia Zibilak, Villabonan eta Usurbilen, ETArekin harremana zutelakoan. Ikerketa iturriek diote ETArekin Donostia taldea berriro osatu nahian zebiltzala, eta 101 kilo lehengai atzeman zizkietela Villabonan, baita 2001ean lapurtutako auto bat ere.

Guardia Zibilak atzo jakinarazi zuen, ostiral iluntzean, Donostiako lokal batean lehegaiak eta armak aurkitu zituela, Puio auzoko lokal batean. Horretaz gain, hamarkada honen hasierako atentatu batzuetan lagundu izana egotzi diete.

Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Gobernuako Barne ministroak osteguneko adierazi zuen ETArekin harreman mailan «berregituratu» egin nahi duela «geldialdi honetan», eta uste du horren froga Guardia Zibilak Villabonan eta Usurbilen egindako atxiloketak direla.

ETAk irailearen 5ean jakinarazi zuen «eraso ekintza armaturik» ez egiteko erabakia hartu zuela duela hilabete batzuk, eta horri deitzen dio «geldialdia» Perez Rubalcabak.

Ezker Abertzalearen agerraldia

Azken hilabete luzeetan bezala, atzokoan ere, ezusteko berri batekin esnatu zen Villabona herria. Kasu honetan, «berri on bat» jaso zuten, hau da, Jesus Mari Besance atxilotua aske utzi zutela hain zuten ere. Ezker Abertzaleak, azken atxiloketak salatzeko agerraldia deitua zuen.

Bertan, Villabonako Ezker Abertzaleko kideak, familiakoak, lagunak eta herritarrak elkartu ziren. Lehenik eta behin atxilotuta aurkitzen diren bi euskal herritarrei «babesa eta elkartasuna» bidali nahi izan zizkieten. Eta baita «beraien senideei ere».

«Beste behin ere inkomunikazioak eta torturaz hitz egiten hasia da, beldur baikara behin atxilotuak epailearen aurrera era-

manda, bi euskal herritar gehiagoren izenak egongo direla torturaren zerrenda beltzean» azpimarratu zuten. Eta gaineratu zuten: «Guardia Zibilak urte honetan atxilotu dituen 28 herritarretatik 24 torturatu ditu».

Villabonan azken urte eta hilabeteetan bizi duten «errepresio egoera» eta Euskal Herriak bizi duen «jazarpena» gogoratu nahi izan zituzten: «Villabonako kaleak Euskal Herriaren ispilu dira. Erantzaintzaren bortizkeriak hildako alkateordea, ihesean minbiziak eramandako iheslaria, atxilotuak, torturatuak, debekuak, polizia gorputz ezberdinen okupazioak, kontrolak...».

«Gogotik jo gaituzte, baina Zutik gaude»

Azken kolpea, asteazkeneko izan zutela gogoratu zuten. «herriko bi anai Guardia Zibilak atxilo eraman zituen».

Villabonako Ezker Abertzalearen ustez, «Polizia operazio guzti hauen xedea Euskal Herrian loratzen ari den aro politiko berria zapuztea da. Azken hilabeteetan izan diren mugimendu politikoek eta ETA erakundearen adierazpenak prozesu politiko bat abian jarri dute». «Errepresio gehiago Euskal Herrian mamitzen ari den prozesu demokratikoak aurrera egin ez dezan».

«Guk Euskal Herria sufrimenduen zirkulu itxitik atera nahi dugu. Beste egoera batera eraman behar dugu herri hau, guk ezagutu ez dugun bake eta justizia egoera, belalaldi berriek ezagutu dezaten» azpimarratu zuten.

Bukatzeko, «errepresioaren xedea demokrazia eragozte da. Errepresioa aldarrikatzen duenak, demokrazia ukatzen du» argitu nahi izan zuten. Eta egoera honenkin amaitzeko, «mobilizazioa eta salaketa» beharrezkoak direla azpimarratu zuten.

Villabonako Ezker Abertzaleak, agerraldia herritarrei «eskerrak» emanez amaitu zuen. Eta hurrengo egunetan ere «errepresioari Stop» esateko ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu zien.



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



ETENGABEKO FORMAZIOA 2010/2011 (Langileak)

Informatika

- Aplikazio informatiko aurreratuak (Word-Excel Aurreratuak)
- Testu editorea, kalkulu orriak eta datu-baseak (Hastapena)
- Ordenagailua. Inguru eta mantenua
- Datu-baseen lanketa eta diseinua (ACCESS)

Administratza

- Nominak eta gizarte-segurantzaren informatika euskarriekin.
- Enpresa txikien zati eta erantintzat - PYMES - kontabilitatea (CONTAPLUS)

Mekanika

- CAD 2 D (Autocad-hastapena)
- Ohiko fresatzaileen mekanizazioa
- CNC tornuaren programazioa (Fagor eta Heindeinhein)
- CNC fresatzaileen prestaketa eta programazioa (Fagor eta Heindeinhein)
- Ohiko tornuaren mekanizazioa
- CNC tornuaren programazioa (Fagor)
- CNC tornuaren prestaketa eta programazioa (Fagor)
- CAD-CAM. Abadura handiko mekanizazioa (Unigraphics)

IKASTARROAK

Soldadura eta galdaragintza

- Galdaragintza eta trazaduren garapena
- Soldaduraren beste prozedura batzuk (Robotaren bidezko soldatzea)
- Mugara eta elektrodokekin estalitako soldatzea
- Horizontalean egingiko MIG-MAG soldatzea
- Horizontalean egingiko TIG soldatzea
- CAD 3 D modelatze eta planoa (SOLID EDGE)
- CAD 3 D multzoak (SOLID EDGE)

Elektrizitate- Automatismoak

- Industri-automatizazioa-mekanikozko elektritzitate
- Instalazio elektrikoak etxebizitzetan
- Pneumatiko eta elektropneumatiko automatismoak
- Oinarritze automatismo programagarriak (SIEMENS S 7)
- Energia alternatiboen instalazioak (elkikoak)

Mantentze-Berogintza

- Berogailuen instalazioaren muntia (irradiatze-luzorak)
- Aire giroten hodian muntia (zati zuzena)
- Klimatizazio instalakuntzen arauzea
- Berogailuentzako eta ACSentzako Eguzki Energia Termikoaren instalakuntza kalkulua
- Arautze automatikoaren elementuak (hidraulikoa)
- Aire giroten instalakuntza
- Berogailu, ACS eta aire instalakuntzarako energia alternatibok

Kalitatea-Zeharkakoak-Kudeaketa

- Kalitatearen kudeaketa
- Kalitate erramintak
- Giza-harremanen kudeaketa (inteligentzia emozionala)
- Lan taldeen kudeaketa (inteligentzia emozionala)
- Ingelesa teknika

Formakuntza Okupazionala

- Fabrikazio mekanikoen eragiketa osagarriak
- Arku elektriko soldatzailea (oinarritza)
- Office-eko ikastaro teknika (SARBIDEAK)

Orotariko ekintzak Aurrera Eguna ospatzeko

Leitza » Elkartearen egunean, mendi, zaldi, pilota, kirol joko eta dantza atalekoek ekitaldiak antolatu eta egin zituzten.

IMANOL GARCIA

Aurrera elkartearen aniztasuna ikusi ahal izan zen atzokoan Leitzako plazan. Elkartearen atalguztiek antolatu zituzten ekitaldiak eta haurrek gozatu ederra hartu zuten, batez ere zaldi gainean, tirolinan eta rokodromoan.

Aurrera elkarteko egoitzatik zintzilikatu ziren hainbat haur eta herriko plazaraino hegan joan ziren tirolinarekin. Mendi atalekoek ere egoitzaren aurrean dagoen rokodromoa prestatu zuten haurrek bertan gora eta behera ibiltzeko. Aurrerako Perra taldekoek ere beraien zaldiak utzi zituzten zaldun txikiak itzulitxo bat egin zezaten kaleetan zehar.

Kirol lehiak ez zuen huts egin eta goizean Kirol Jokoa ataleko futbolariak partida jokatu zuten



plazan. Ondoren, Aurrera Pilota Eskolako neskek pala partida jokatu zuten. Iera Agirrek eta Ainara Lasartek 30-25 irabazi zioten Judith Etxarri eta Ainara Zabaletari partida borrokatu batean. Arratsaldean futbol taldeko jubenilek ligako partida izan zuten.

Dantzariekin amaitu ziren goizeko ekitaldiak. Agurra, Gipuzkoako Brokel Dantzaren Makil Dantza, Lesakako Zubi Gaineako Mutil Dantza, Saski Dantza, Lapurdiko Makil Dantza eta Polka dantzatu zituzten.



Dantzarien emanaldia eta pala partida ikusteko eta, tirolinan eta zaldi gainean ibiltzeko aukera izan zen atzokoan. i.g.



Udalbiltzako auzipetuei elkartasuna

TOLOSA » Bai Udalbiltzari Sareak deituta, elkarretaratzera egin zuten atzo eguerdian Tolosako udaletxearen aurrean. 50 lagun inguru elkartu ziren Udalbiltzaren aurkako epaieketa salatatzeko eta auzipetuei elkartasuna adierazteko. A. MAIZ



Marokoko tea, gozoak eta musika

VILLABONA » Atzo Aljibean izan ziren eta gaur ere, 10:00etatik 20:00etara bertan egongo dira. Bertaratuek, Maroko herriaz gehiago jakin dezaten, bideo emanaldiak, zuzeneko musika, artisauro lanak... ikusi eta entzun ditzakete. Tea eta gozoak dastatzeko aukera eskaintzen dute. E. MAIZ

Eskuratu
Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma DOAN!

Jaso **urriaren 3an BERRI**arekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin.



10 liburuxka:

4 parke natural:

Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta

3 biotopo:

Leitzarán, Iñurritza eta Fylsch Deba-Zumaia

Parketxe sareak • Talaia bidea

Ibilbide irisgarriak: Larritz eta Arantzazu

Bakoitzean hainbat ibilbide + guztia bilduko duen zorroa





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Villabona.** Maite Agirrerren haur-errentzako *Nork ikusi du Dultzinea?* obra Gurean, 17:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Step up 3* haurrentzako filma Leidor aretoan 17:00etan.
Lope filma 19:30ean eta 22:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943-67 32 74. Bihar: Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7 (Tolosa). 943-670648
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. San Martin, 5. 948-50 01 05. Bihar: Plaza, M. Elbarren, 36 (Leitza). 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Ane Lopetegi Arrue (Tolosa). Gaur 3 urte. Muxu asko etxeko guztien partetik! Jon eta Aitor.

Iruran herensugea erreta, jaiak bukatu zituzten. Ugarten berriz gaur bukatuko dituzte, aurretik, txakolin dastaketa, trikitalariak, herri kirolak, Ingurutxoak,... izango dituzte.

Iruran bukatu, Ugarten jarraitu

ERREDAKZIOA

Herriko festen azken txanpara iritsi dira irurarrak. Atzo bikoteen eguna ospatu zuten. Bikoteen dantza-soka dantzatu eta bazkaria izan zuten. Haurrek ere egun polita izan zuten. Goizetik aurrera, haur parkea, puzgarriak eta Luma Gorri dantzaldia eduki zituzten.

Camping Renove izeneko kale antzerkia ere ikusi ahal izan zen atzokoan. Afalostean, Lain taldearen txanda iritsi zen eta gauerdian, Herensugea erre ostean, herriko festak hurrengo urtera arte agurtu zituzten. Haitzama taldearekin eman zieten amaiera jaiei.

Ugarten bihar bukatuko dituzte jaiak. Eta atzo, haurrek ez zuten atseden hartzeko denborarik izan: puzgarriak, ohe elastikoak, zaldian ibiltzeko aukera, txokolata,... izan zituzten. Iluntzean bertso poteoa izan zuten eta afariaren ostean, Ostolaza eta Andonegi trikitalariak.



Iruran, bikoteen eguna ospatu zuten. Eta bikoteen soka-dantza dantzatu zuten. Ondoren bazkaria izan zuten. E. MAIZ



Ugarten, zaldien gainean ibiltzeko aukera izan zuten haurrek, baita puzgarrietan jolastekoa ere. I.GARCI



argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa



HITZA udarako argazki lehiaketa



1. Saria

EAKO Andutza 10 pertsonentzako

3. Saria

Gorrotxategi Go eskeinitako saski

2. Saria

Getariako Gure Amndetxean bi pertsonentzako gau bat pasatzeko an

-hartzaile eta botu AKO materiala ere